

Espediente mota: Administrazio kontratazioa. Prozedura irekia.

Kontratua: Bermeoko Udaleko aseguru pribatuen bitartekaritza KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA.

Espediente zenbakia: 2016-70

KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO AKTA

1) Bilkurari buruzko datuak

- Bilkura eguna: 2016-11-07
- Ordua: 09:14
- Lekua: Intxausti kalea 2ko 3.solairuko batzar gelan.
- Kontratuaren xedea: Bermeoko Udaleko aseguru pribatuen bitartekaritza KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA. HUTSIK DEKLARATZEA.
- Jardunbidea eta esleipen modua: Prozedura irekia.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: DOUE-an 2016-08-31an bidalita; BOE-ean 2016-09-08an argitaratua.

2) Bertaratu diranak

. Mahaiburua: IDURRE BIDEGUREN GABANTXO Alkate A^a

. Mahaikideak:

AINGERU ASTUI ZARRAGA zinegotzi J^a

JON GOIKOLEA OJINAGA zinegotzi J^a

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN A^a Jarduneango Udal Idazkaria.

EDURNE URRUTIA URIARTE A^a Udaleko Kontuhartzailea.

Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZZEA ORMAZA J^a



- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Espediente osoa jagokon teknikariari helarazi ondoren, bere txostena emon dau urriaren 28ko dataz, zera diñona:

Planteatutako gaia

2017rako aseguru pribatuen bitartekaritza kontratazioa

Nork eskatu dauen txostena

Kontratazio Mahaiak

Aurrekariak

Lehenengoa: 2017ko irailaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki eban:

BIGARRENA: Bermeoko Udalak 2017rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratazeko espedienteari hasiera emotea eta erantsitako baldintza plegu honeek onartzea:

- ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

- **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

HIRUGARRENA: Kontratazioa kaleratzea.

Bigarrena: Legeak agindutako iragarkiak egin izan eta lizitazaileek proposizioak aurkezteko azken eguna 2016ko urriaren 10 izan zan.

Hirugarrena: Aurkeztu dan enpresa bakarra AON Gil y Carvajal izan dala eta bere eskaintzari buruzko txostena egiteko eskatu deutso teknikari honeri Kontratazio Mahaiak, 2016koko urriaren 24an egindako bilkuran.

Argudioak

Lehenengoa: ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN

ORRIetan kontratuaren xede eta eskaintzei buruz honako hau dago xedatuta:

1. KONTRATUAREN XEDEA



1.1 Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko Udalak 2017rako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea, jarraian zehazten diran aseguru pribatuen kudeaketarako zein aldian-aldian sortu daitekezanen kudeaketarako:

- Erantzukizun zibileko aseguruak
- Kalte materialen aseguruak
- Ibilgailuen aseguruak
- Defentsa juridikoko aseguruak
- Korporazinoko kideen bizi-aseguruak
- Udaleko eta Kirol eta Gizarte Ongizate Patronatu-aseguruak
- Beharginen bizi-aseguruak
- Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruak
- Itsasontzietako kroskoen aseguruak
- Aita Guria itsasontziko ekipamentuak
- Udaleko eta bere organismo autonomoetako korporazio kideen eta langileen erantzukizun zibilaren aseguruak (Laburbilduta: erabakiak hartzen dabezenen erantzukizun zibilaren aseguruak)

1.4 Kontratu honen xedea bitartekaritza zerbitzuetatik eratorritako aseguruak be badiranez, eskaintzak aurkezten dabezan artekariak edo artekaritzek, baldintza-ordua honetan azaltzen diran **arriku bakotxarentzat hiru aseguru eskaintza aurkeztu beharko dabez onartuak izateko** eta euren eskaintzak aurkezteko aseguru-konpainien konpromisoa daukiela eta kontratazino espedienteko administrazio baldintza eta baldintza teknikoan Orrietan ezarritakoa onartzen dabela deklaratu be bai.

20. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrita.

Balioespenerako eta kontratuaren esleipenerako irizpideak, lizitatuzaileen proposamen bakotxeko aseguru guztiei aplikatuta emoten dauan puntu batuketa izango da alderatuko dana.

22.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

“B” kartazalaren azpititulua hau izango da: **“PROPOSAMENA”**. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Derrigorrez hiru proposamen honela beriztuta 1. PROPOSAMENA, 2. PROPOSAMENA ETA 3. PROPOSAMENA. Bakotzak** 1go. baldintzan zehaztutako aseguru xede guztien prima garbiak adierazota eta eskaintzaileak edo aurkezten dauen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren **III. eranskin modura agertzen dan ereduaren arabera** idatzita. Era berean, eranskin horri erantsi behar jakoz be, operazioa zergapetu daikien zergak, gastuak, tasak edo arbitrajeak zein polizearen azken prezioan eragin daiken beste edozein gastu.



Bigarrena: AON Gil y Carvajal enpresak B kartazalan aurkeztutako Pleguaren **III. eranskin modura agertzen dan ereduaren arabera** idatzitakoa egiaztatuta, honako hau daukagu:

1. PROPOSAMENA

Aseguru xedea	komisio %	PRIMA garbia	zergak	Partuergoa	PRIMA	Aseguratzaila
Erantzukizun zibileko aseguruua	%4	31.050,00	1.909,58		32.959,58	MAPFRE
Kalte materialen aseguruua	%4	12.827,45	788,89	8.023,24	23.608,78	MAPFRE
Ibilgailuen aseguruua	%4	15.850,51	1.258,70	183,70	17.292,91	LAGUN ARO
Defentsa juridikoaren aseguruua	%4	942,06	57,94		1.000,00	DAS
Korporazinoko kideen bizitza aseguruua	%4	2.192,59	1,45	3,74	2.197,78	SURNE
Kirol Patronatuko beharginen bizitza aseguruua	%4	1.458,89	0,92	3,08	1.462,89	SURNE
Gizarte Ongizate Patronatuko beharginen aseguruua	%4	12.360,14	8,30	25,30	12.393,74	SURNE
Udaleko beharginen bizitza aseguruua	%4	23.839,98	16,03	42,92	23.898,81	SURNE
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruua	%4	679,86	1,02	4,41	685,35	SURNE
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	%4	850,00	52,28	35,28	937,56	MAPFRE
Aita Guria itsasontzia	%4	28.234,87	1.736,44		29.971,31	MAPFRE
Ortube itsasontzia	%4	4.500,00	276,75		4.776,75	MAPFRE
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguruua	%4	2.200,00	135,00		2.335,00	AIG



2. PROPOSAMENA

Aseguru xedea	komisio %	PRIMA garbia	zergak	Partuergoa	PRIMA	Aseguratzaileria
Erantzukizun zibileko aseguru	%4	33.904,00	2.085,00		35.989,00	AXA
Kalte materialen aseguru						AXA no presenta
Ibilgailuen aseguru						AXA no presenta
Defentsa juridikoaren aseguru	%4	973,14	59,85		1.032,99	ARAG
Korporazinoko kideen bitzitza aseguru	%4	2.365,55	1,46	3,74	2.370,75	NATIONAL NEDERLANDEN
Kirol Patronatuko beharginen bitzitza aseguru	%4	1.580,12	0,97	3,08	1.584,17	NATIONAL NEDERLANDEN
Gizarte Ongizate Patronatuko beharginen aseguru	%4	11.386,13	8,35	25,30	11.419,78	NATIONAL NEDERLANDEN
Udaleko beharginen bitzitza aseguru	%4	26.306,61	16,46	42,90	26.365,97	NATIONAL NEDERLANDEN
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru						AXA no presenta
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak						AXA no presenta
Aita Guria itsasontzia						AXA no presenta
Ortube itsasontzia						AXA no presenta
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguru	%4	2.550,00	156,82		2.706,82	DUAL

3. PROPOSAMENA

Aseguru xedea	komisio	PRIMA	zergak	Partuergoa	PRIMA	Aseguratzaileria
---------------	---------	-------	--------	------------	-------	------------------



	%	garbia				
Erantzukizun zibileko aseguria						LAGUN ARO no presenta
Kalte materialen aseguria						LAGUN ARO no presenta
Ibilgailuen aseguria						LAGUN ARO no presenta
Defentsa juridikoaren aseguria						CHUBB. no presenta
Korporazinoko kideen bizi-asegurua	%4	2.242,68		3,74	2.246,42	ZURICH
Kirol Patronatuko beharginen bizi-asegurua	%4	1.483,24		3,08	1.486,32	ZURICH
Gizarte Ongizate Patronatuko beharginen aseguria	%4	11.210,32		25,30	11.235,62	ZURICH
Udaleko beharginen bizi-asegurua	%4	24.846,36		42,90	24.889,26	ZURICH
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria						LAGUN ARO no presenta
Aita Guria Itsasontziko ekipoen elektronikoen						LAGUN ARO no presenta
Aita Guria itsasontzia						LAGUN ARO no presenta
Ortubeko itsasontzia						LAGUN ARO no presenta
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguria	%4	2.750,00	169,13		2.919,13	SEGURCAIXA

Hirugarrena: 2. eta 3. proposamenak deitutakoetan arrisku baxetarako eta gutxienez ez dau aurkeztu aseguru eskaintzarik. Ez aurkeztearen motiboa aseguratzaileek ez aurkeztea izan dala adierazota.

Kontratazio honetan aseguru eskaintzak aurkeztea ez da izan aseguratzaileek egin beharrekoa, artekariak egin beharrekoa baizik. Beraz arrisku baxetarako eta gutxienez aseguru eskaintzarik ez egitearen erantzukizuna ezin jake helarazi





aseguratzaileei. AON Gil y Carvajal artekaria da kontratazino baldintzak bete ez dauzana.

Laugarrena: Konklusinoa derrigorrez aurkeztu beharrekoa aurkeztu ez dauan ezker, onartezina da B kartazalean aurkeztutakoa.

ERABAKIA:

Guzti honen aurrean, kontratazio mahaiak zera proposatu deitso Tokiko Gobernu Batzarrari:

Bermeoko Udalak 2017rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzu kontratazinoa HUTSIK deklaratzeko, aurkeztutako eskaintza bakarra onartezina deklaratu.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 09:15etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK

Izenpea

IDAZKARIAK

izenpea

